# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

## 4504

*AGINDUA, 2020ko urriaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arlo sanitarioko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak emateko arauak ezartzen baitira eta 2020ko deialdia egiten baita.*

Osasun Sailaren helburuetariko bat da zerbitzu sanitarioen kalitatearen hobekuntza sustatzea, talde sanitarioaren prestakuntza areagotuz; horregatik, epe ertain eta luzeko estrategia bat planteatu da, Euskal Sistema Sanitarioko langileek praktika profesionalean duten gaitasuna areagotu dezaten.

Horrela, kualifikazio optimoa bermatzeko eta langileen garapen profesionala indartzeko tresna da prestakuntza. Berariaz sustatu nahi dira atzerriko prestakuntza-egonaldiak eta prestakuntza-jarduerak, eta estatuko unibertsitate-ikastegietan konpetentzia aurreratuak eskuratzea alor hauetan: kudeaketa sanitarioa; osasun publikoa (haurren obesitatea); zainketa aringarriak; integrazio asistentziala; familia- eta komunitate-medikuntza; suizidioa prebenitzeko estrategien garapena; Euskadiko Onkologia Plana, eta Nahasmendu Neurodegeneratiboak eta Neuromuskularrak. Generoa eta osasuna: generoaren eta osasunaren arloko prestakuntza integrala, zeinaren helburua baita zerbitzu sanitarioetako jarduera asistentzialean, plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea, arlo horretako ikerketa-proiektuak egin eta ebaluatzea, ezagutza zientifikoa handituko duten osasunaren eta generoaren arloko ikerketak proposatu eta garatzea, eta arlo sanitarioan genero-indarkeriako kasuak detektatu eta tratatzea.

Beka- eta laguntza-programa hau bi xedapen hauetan jasota dago: Osasuneko sailburuaren otsailaren 11ko Agindua (Osasun Sailaren 2020ko ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzen duena) eta abenduaren 27ko 13/2019 Legea (Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena).

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da osasunaren arloan 2020. urtean hasiko diren prestakuntza-jarduerak finantzatzeko bekak eta laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egitea. Honako modalitate hauek daude aukeran:

a) Estatuko unibertsitate-ikastegiek, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizatearen Ministerioaren mendeko osasun-institutuek edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-eskolek emandako graduondoko ikastaroetan parte hartzea; edo aipatutako erakundeek ematen ez badituzte ere, hitzarmen baten bitartez halako izaera lortzen duten ikastaroetan parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen berezko graduondoko tituluen sortzaile badira eta arlo hauetan konpetentzia aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude:

– Kudeaketa sanitarioa: kostu sanitarioen eta ospitale-kostuen kudeaketa eta kontrola; marketina; giza baliabideak; zerbitzu sanitarioen produktibitatea eta plangintza; kalitatearen kontrola; arreta soziosanitarioa; langile sanitarioen arriskuak; erakunde sanitario motak; kudeaketa sanitarioko politikak; plangintza estrategikoa; zerbitzu sanitarioen ikuskapena, eta kudeaketaren tratamendu informatikoa.

– Osasun publikoa: nabarmendu behar dira haurren obesitatearen eta elikadura-nahasmenduen prebentzioa; tresna metodologikoen ezarpena (estatistika eta epidemiologia), eta plangintza eta ebaluazioa (beharra, eskaintza eta eskaria, efikazia, eraginkortasuna, efizientzia eta ekitatea, adierazleak, gaixotasunen prebentzio- eta babes-estrategiak, eta osasunaren sustapena).

– Zainketa aringarriak: alderdi kulturalak, sanitarioak, psikosozialak, legezkoak eta etikoak; zainketa aringarrietako zerbitzuen kudeaketa; ikerketa, sintomen kontrola eta erabakiak hartzea.

– Familia- eta komunitate-medikuntza: horren garapena sustatu eta bultzatzea.

– Integrazio asistentziala: zainketa sanitarioak antolatzea, pazienteen emaitzak hobetzea helburutzat hartuta, bereziki prozesu asistentzialak integratuz, Euskadiko Arreta Integratuaren Planean jasotakoaren arabera.

– Suizidioa prebenitzeko estrategiak.

– Euskadiko Onkologia Planeko ekintzak.

– Nahasmendu neurodegeneratiboak eta neuromuskularrak.

Generoa eta osasuna: generoaren eta osasunaren arloko prestakuntza integrala, zeinaren helburua baita zerbitzu sanitarioetako jarduera asistentzialean, plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia txertatzea, arlo horretako ikerketa-proiektuak egin eta ebaluatzea, ezagutza zientifikoa handituko duten osasunaren eta generoaren arloko ikerketak proposatu eta garatzea, eta arlo sanitarioan genero-indarkeriako kasuak detektatu eta tratatzea.

b) Atzerriko unibertsitate-ikastegietan emandako graduondoko ikastaroetara joatea eta prestakuntza-egonaldiak egitea, epe mugatu batez, atzerriko zentro sanitarioetan edo ikerketa sanitarioko zentroetan, osasun-zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutzak eta trebetasunak areagotzera bideratutako prestakuntza-programa indibidualizatuak garatzeko.

2.– Ikastaroek gutxienez 60 ECTS kredituko karga akademikoa izango dute, eta titulu ofizialak zein propioak lortzera bideratuta egon daitezke.

3.– Ez da bekarik edo laguntzarik emango Osasun Sailak diruz lagundutako prestakuntza-jarduerak burutzeko.

2. artikulua.– Onuradunak.

Bekak edo laguntzak eskuratu ahal izango dituzte, Dirulaguntzen Lege Orokorrak 13. artikuluan xedatutako baldintza orokorrak betetzeaz gain, honako hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek:

a) Goi-mailako edo erdi-mailako unibertsitate titulua izatea.

b) Beka- edo laguntza-eskabidea aurkeztu baino gutxienez urtebete lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean erroldatuta egotea.

c) 1. artikuluan zehaztutako prestakuntza-jardueraren bat egitea.

d) Ez egotea egoitza-sistemaren bidezko prestakuntza-aldian.

e) Dagozkien elkargo profesionaletako elkargokide izatea.

Gainera, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 23.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, eskabidearekin batera arauan eta deialdian ezarritako agiriak eta informazioa bidali beharko dute interesdunek; ez dute halakorik bidali beharko, baldin eta administrazio jardulearen edozein organoren esku

badaude eskatutako dokumentuak, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan.

3. artikulua.– Aurrekontua eta organo kudeatzailea.

1.– 2020. urtean, 108.010 euro bideratuko dira bekak eta laguntzak finantzatzera; horietatik, 64.806 euro 2020ko ekitaldiari dagozkio, eta 43.204 euro, berriz, 2021eko ekitaldiari.

2.– Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak kudeatuko ditu bekak eta laguntzak.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak kategoria hauetan multzokatzen dira:

a) Beka: hemen sartzen dira b) apartatuan adierazitakoez bestelako mantenu-gastuak eta elkarren segidako hiru (3) hilabete baino gehiago irauten duten prestakuntza-egonaldietan zehar onuradunarekin bizi diren seme-alaba adingabeek sortzen dituzten gastuak –bidaia-gastuak izan ezik– ordaintzeko laguntza osagarria.

b) Laguntza: bidaia-gastuak, matrikula, ostatua eta ikasmateriala erosteko gastuak hartzen ditu.

2.– Prestakuntza-jarduerarekin batera jarduera ordainduren bat egiten duten pertsonek laguntzak soilik jaso ahalko dituzte; jarduera ordaindurik egiten ez dutenek, berriz, laguntzak eta bekak jaso ahalko dituzte.

3.– Hauek dira diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoak:

a) Lekualdaketen kasuan, ostatu-gastuak: mila (1.000) euro hileko.

b) Matrikularen eta ikasmaterialaren gastuak: zortzi mila (8.000) euro.

c) Bidaia-gastuak, guztira: bi mila (2.000) euro.

d) Laguntza-osagarria: hirurehun (300) euro hileko, seme-alaba bakoitzeko.

e) Mantenu-gastuak: bostehun (500) euro hileko.

f) Beka edo laguntza, guztira, aipatutako kontzeptu guztiak aintzat hartuta: mila eta bostehun (1.500) euro hileko.

4.– Beka edo laguntza, gehienez ere, urtebeterako emango da, eta, epe horren barruan, 60 kredituak gainditu beharko dira. Luzeagoa bada egonaldiaren edo ikastaroaren prestakuntza-plana, beka edo laguntza berriro eskatu beharko da hurrengo deialdian.

5. artikulua.– Emateko prozedura eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Lehia-konkurrentziako prozedura erabiliko da bekak eta laguntzak emateko.

2.– Eskabideak alderatzeko prozesua 6.2 artikuluan aurreikusitako bi faseetan burutuko da.

3.– Eskabideak eta horien haztapena alderatzeko, ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

a) Egonaldiaren edo ikastaroaren prestakuntza-planaren edukiek jarduera profesionalarekin duten erlazioa; edo, langabezian badago, eskatzaileak egin dituen ikasketekin duten erlazioa (30 puntu, gehienez).

– 30 puntu emango dira, prestakuntza-jardueraren helburua bada eskatzaileak –orain edo etorkizunean– hobeto betetzea bere lanpostuan esleituta dituen eginkizunak.

– 15 puntu emango dira, prestakuntza-jardueraren helburua bada lanbidearen garapenean eta sustapenean laguntzea, hau da, gaitasuna eta garapen profesionala ematea eskatzailearen lanpostua ez den beste baten zereginak bete ahal izateko. Era berean, 15 puntu emango dira apartatu honetan, eskatzailea langabezian badago.

b) Egonaldiaren edo ikastaroaren kalitatea (20 puntu, gehienez).

1) Atzerriko unibertsitate-ikastegietan edo atzerriko unibertsitate-ikastegiei lotutako ospitaleetan edo ikerketa-zentroetan ematen dituzten graduondoko ikastaroetan parte hartzea eta prestakuntza-egonaldiak egitea: ARWU Academic Ranking of World Universities sailkapenaren azken edizioan unibertsitateak duen postuaren arabera.

– Lehenengo 100 postuen artean badago: 20.

– 101. eta 200. postuen artean badago: 15.

– 201. eta 300. postuen artean badago: 10.

– 301. eta 500. postuen artean badago: 5.

2) Unibertsitate-ikastegiek emandako graduondoko ikastaroetan parte hartzea:

– Euskal Herriko Unibertsitatea: 20 puntu.

– Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako unibertsitateak: 17 puntu.

– Estatuko gainerako unibertsitateak.

BBVA-IVIE Fundazioaren unibertsitate espainiarren U-sailkapenaren azken edizioan unibertsitateak duen mailaren arabera.

– Lehenengo 4 mailak: 15.

– 5., 6., eta 7. mailak: 11.

– 8., 9., eta 10. mailak: 8.

– 11. maila eta goragokoak: 5.

3) Atzerriko unibertsitatez kanpoko ikastegietan egindako prestakuntza-egonaldiak.

Prestakuntza-egonaldia unibertsitateari lotuta ez dagoen zentro batean egiten bada, ikasgaian espezializatutako zentroen sailkapen bat bilatuko da –nazioartean onartuta dagoena–, sailkapen horretan zentroa nola dagoen kokatuta, horren arabera egingo da balorazioa.

– Lehen kuartila: 20.

– Bigarren kuartila: 15.

– Hirugarren kuartila: 10.

– Laugarren kuartila: 5.

Ez badago ikasgaian espezializatutako eta nazioartean onartutako zentroen sailkapenik, gaian aditu direnekin kontsultatuko da.

c) Eskatzailearen titulua/k (10 puntu, gehienez).

– Lizentzia edo gradua: 5.

– Masterra: 7.

– Doktoretza: 10.

d) Eskatzaileak zer lan-harreman duen Euskadiko sistema sanitarioarekin, eskabidea aurkeztu eta laguntzak ematen diren arteko egunetan (10 puntu, gehienez).

– Langile finkoa izatea edo espezialitatea –egoiliar gisa– amaitua izatea agindu hau argitaratu aurreko bi (2) urteetan: 10.

– Bitarteko langilea: 5.

– Behin-behineko langilea edo ordezkoa: 2.

6. artikulua.– Eskabideak ebaluatzea, zenbatekoak zehaztea eta ebazpena proposatzea.

1.– Balorazio Batzordearen eginkizuna izango da eskabideak ebaluatzea, dirulaguntzen zenbateko indibidualak zehaztea eta dirulaguntza eman edo ukatu behar den proposatzea; batzordea artikulu honen 2., 3., eta 4. apartatuetan ezarritakoaren arabera arituko da, eta honela osatuta egongo da:

a) Batzordeburua: Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria. (Mikel Sanchez Fernandez).

b) Batzordekideak:

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Laguntza Sanitarioko zuzendaria (Andoni Arcelay Salazar).

– Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko Zerbitzuko arduraduna (Antonia Daza Gutierrez).

– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prestakuntza Zerbitzuko burua (Pako Serna Rodriguez).

– Idazkaria: Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko Zerbitzuko teknikaria (Rafael Andrés Barruso).

2.– Bi fasetan egingo da eskabideak ebaluatzeko eta zenbateko indibidualak zehazteko prozesua:

a) Lehenengo fasea: Programa honen azken hiru (3) deialdietan beka edo laguntzarik lortu ez duten pertsonen eskabideak edo, beka edo laguntza lortu izanik, 2019ko deialdian diruz lagundutako prestakuntza-jarduera batekin jarraitzeko beka- edo laguntza-eskabidea aurkeztu duten pertsonen eskabideak ebaluatuko dira, eta dagozkien zenbatekoak ezarriko.

b) Bigarren fasea: Lehenengo faseko laguntzak emateko proposamenek ez badute aurrekontua agortu, gainerako eskabideak ebaluatu eta dagozkien zenbatekoak ezarriko dira.

3.– Hauek dira eskabideak ebaluatzeko eta zenbatekoak zehazteko prozedura osatzen duten jarduketak:

a) Egiaztatzea eskabideek 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta, hala badagokio, zuzenketa egiteko eskaria bete dela 10.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Kanpoan uztea 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak.

c) 1. eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak ebaluatzea, 5.3 artikuluan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera.

d) Kanpoan uztea hogeita hamabost (35) puntu baino gutxiago lortu dituzten eskabideak, hori baita izan beharreko gutxieneko puntuazioa.

e) Gutxienez hogeita hamabost (35) puntu lortu dituzten eskabideei dagokienez, diruz lagundu daitezkeen gastuak kalkulatzea: eskabidean identifikatutako aurrekontua bat etorriko da 4. artikuluan ezarritako muga eta zehaztasunekin.

f) Zenbatekoak zehaztea, diruz lagundu daitekeen gastuari ehuneko hauek aplikatuz.

– % 100: 60 puntu edo gehiago lortu dituzten eskabideak.

– % 90: 49 eta 59 puntu bitarteko puntuazioa lortu duten eskabideak.

– % 80: 35 eta 48 puntu bitarteko puntuazioa lortu duten eskabideak.

Baldin eta 3. artikuluan adierazitako zuzkidura ekonomikoa ez bada aski gutxieneko puntuazioa lortu eta gainerako baldintzak bete dituzten eskabide guztiei erantzuteko, apartatu honetan adierazitako zenbatekoetan, zuzkidura ekonomikoa eskabideen artean banatuko da, hasieran kalkulatutako kopuruen proportzio berean.

4.– Zenbatekoak zehaztu ostean, ebazpen-proposamena egin eta Osasuneko sailburuordeari bidaliko zaio. Proposamen horretan, hauek zehaztu beharko dira eskabide bakoitzari dagokionez:

a) Dirulaguntza onartuz gero: onuradunaren nortasuna, diruz lagundutako prestakuntza-jarduera eta dirulaguntzaren zenbatekoa, kategoria zehaztuz.

b) Dirulaguntza ukatuz gero: eskatzailearen nortasuna, zer prestakuntza-jardueratarako egin duen eskaera eta zergatik ez zaion onartu.

7. artikulua.– Ebazpena.

1.– Osasuneko sailburuordearen ebazpenaren bidez amaituko da prozedura, non 6.4 artikuluan zehaztutako datuak adieraziko baitira; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da ebazpena.

2.– Ebazpena argitaratzeko, gehienez hiru (3) hilabeteko epea egongo da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, interesdunek ezetsitzat jo ahalko dute beren eskabidea.

3.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua.– Uko egitea.

Dirulaguntzari uko egin nahi dioten onuradunek jakinarazpen-idazki bat aurkeztu beharko dute Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzan, 10.3 artikuluan ezarritako bideren bat erabilita, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) eguneko epean.

Onuradunak ez badio uko egiten dirulaguntzari epearen barruan, ulertuko da onartu egin duela, bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 2.2.b) artikuluarekin.

9. artikulua.– Beken eta laguntzen bateragarritasuna.

1.– Bekak ez dira bateragarriak jarduera berbera finantzatzeko emandako bestelako dirulaguntzekin.

2.– Laguntzak bateragarriak dira jarduera berbera finantzatzeko emandako beste dirulaguntza batzuekin, baina, baterako zenbatekoa handiagoa bada jarduerak sortzen dituen gastuak baino, laguntzaren zenbatekoari gaindikinaren zenbatekoa kenduko zaio.

10. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak egiteko, agindu honen eranskinetan jasota dauden eredu normalizatuak beteko dira –erabilgarri daude www.euskadi.eus webgunean–, eta, horrekin batera, prestakuntza-egonaldiaren edo graduondoko ikastaroaren prestakuntza-plana bidali beharko da, non jasota egongo baitira programa, edukia eta jarduerak.

Hauek dira web-orrian eskura dauden eredu normalizatuak:

– Eskabide-eredua eta eskatzailearen erantzukizun-adierazpena, alderdi hauek egiaztatuko dituena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluak eskatzen duenaren arabera:

– Xede eta helburu bererako beste laguntzaren bat jasotzen ari den edo ez administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

– Ez duela itzulketa-betebeharrik eta ez dagoela Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako gainerako debekuen eraginpean.

– Beste administrazio publiko edo erakunde pribatu baten laguntza eskatu duen, eta onartu zaion edo ebazteko zain dagoen.

– Ez duela zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

– Ez duela ezarrita laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko desgaikuntza berekin dakarren legezko debekurik, berariaz kontuan hartuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.

– Eskatzaileak ez duela ezintasunik diruz lagundutako prestakuntza-jarduerei dedikazio egokia eskaintzeko, ordaindutako lana edo beste edozein okupazio edukitzeagatik.

– Aitorpen edo ekitaldi horri dagokion denboran zehar aurreko betebeharrak betetzen jarraituko duela, eta baldintzen edozein aldaketa jakinaraziko diola administrazioari, erabateko ez-betetze kasuak eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen direla saihesteko.

– Laguntza hauen deialdiaren oinarrietan eta onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela (I. eranskina).

– Adostasuna: deialdiaren organo kudeatzaileari baimena ematea administrazio eskudunera jo eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, jasotzeko edo baieztatzeko. Adostasuna ematearen aurka egonez gero, prozeduran eskatzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

– (I. eranskina) Prestakuntza-egonaldiaren edo graduondoko ikastaroaren prestakuntza-plana, non hauek jasoko baitira:

– Egonaldiaren edo graduondoko ikastaroaren programa.

– Programaren edukia.

– Jarduerak.

– (II. eranskina) Eskatzailearen curriculuma.

– Datuen alta / Hirugarren interesduna.

– Eskatzaileak Euskadiko Osasun Sistemarekin duen lan-harremanaren ziurtagiria, zerbitzuak ematen dituen entitatearen langile gaietako organo eskudunak emana.

– Egonaldiaren edo ikastaroaren prestakuntza-planaren edukien eta eskatzailearen jarduera profesionalaren arteko harremanaren ziurtagiria, zerbitzuak ematen dituen unitatearen arduradunak emana.

– Eskabidea aurkezteko egunean eskatzailea arlo sanitarioan ari bada lanean, eskabidearekin batera lantokiko zuzendaritzaren baimena aurkeztu beharko du prestakuntza-jarduera egiteko; baimen horretan adieraziko da prestakuntza-egonaldiak edo graduondoko ikastaroak eskatzailearen jarduera profesionalarekiko duen egokitzapen-maila: handia, ertaina edo txikia.

2.– Prestakuntza-jarduera bat baino gehiagorako dirulaguntza lortu nahi duten pertsonek jarduera bakoitzerako eskabide bat aurkeztu beharko dute.

3.– Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eskuratu daitekeen formulario normalizatuaren bidez (https://www.euskadi.eus), bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14. artikuluan ezarritakoarekin eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28.1 artikuluarekin.

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa (1) da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

5.– Eskabideak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak, hamar (10) egun emango zaizkio interesdunari akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

11. artikulua.– Justifikazioa.

1.– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 30. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da justifikazioa; hau da, jatorrizko fakturak eta merkataritza-trafikoan baliozkoak diren edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako frogagiri baliokideak aurkeztuko dira. Faktura elektronikoen bidez ere egiaztatu ahal izango dira gastuak.

Dirulaguntzaz gain, funts propioak edo bestelako dirulaguntzak edo baliabideak erabili badira jarduerak finantzatzeko, justifikazio horretan, funtsen zenbatekoa eta jatorria egiaztatu beharko dira, bai eta diruz lagundutako jardueretarako erabili izana ere.

Egin beharreko jarduera egin eta hura finantzatzeko funtsak horretarako erabili izana justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzan, beken zein laguntzen kasuan:

– Egindako gastuen zerrenda, eta horietako bakoitzari dagozkion fakturak eta ordainagiriak.

– Amaierako memoria, egindako prestakuntza-jardueraren deskribapen zehatza jasotzen duena.

– Asebetetze-mailari buruzko galdetegia (III. eranskina).

– Zentroak emandako titulua.

2.– Agiriak 2021eko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira, 10.3 artikuluan ezarritako moduan.

12.– artikulua.– Ordainketa.

Ordainketa bi zatitan egingo da:

a) Zenbatekoaren ehuneko hirurogei (% 60) 8. artikuluan zehaztutako epea igaro eta gero ordainduko da.

b) Gainerakoa (% 40) 11.1 artikuluan zehaztutako agiriak aurkeztu eta gero ordainduko da.

Salbuespenez laguntzaren % 60 aldez aurretik ordaintzea Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.1.h) artikuluari jarraituz egin ahal izango da, eta justifikatuta dago onuradunek, askotan, prestakuntza-jarduera hasi aurretik, hainbat gasturi aurre egin behar izaten dietelako.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Indarrean dauden lege- eta erregelamendu-arauetan eta agindu honetako artikuluetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte onuradunek, eta konpromiso hauek hartu:

a) Beka edo laguntza jaso izanaren berri emango dute diruz lagundutako prestakuntza-jarduera egitearen ondoriozko edozein agiri edo zabalkunde-ekitalditan.

b) Diruz lagundutako prestakuntza-jardueratik ateratako ondorioak erabiltzeko aukera emango diote Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzari, zabalkunde eta komunikazio korporatiboko planak lantzeko, eta parte hartuko dute zuzendaritza horrek antolatzen dituen zabalkunde-ekitaldietan.

Gainera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bereziki hauek:

a) Jarduera burutzea edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran egotea.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundearen aurrean egiaztatzea laguntza jasotzeko edo baliatzeko ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzen dituela eta egin beharreko jarduera egin duela.

c) Laguntza eman duen erakundeak egingo dituen egiaztapen-jarduketak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egingo dituen kontrol-jarduketak onartuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura jasotako laguntzei eta dirulaguntzei dagokienez, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi espezifikoan aurreikusita dauden jarduketak ere.

d) Laguntza eman duen erakundeari jakinaraztea ea beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batetik bestelako dirulaguntza edo laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso duen xede berbererako.

e) Laguntza eman duen erakundeari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo nahiz subjektiboren aldaketak.

Era berean, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, esaterako:

a) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzeko agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

b) Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuetan.

14. artikulua.– Ez-betetzeak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan edo azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badago dirulaguntza jaso duen onuraduna, edo agindu honetan nahiz aplika daitekeen gainerako araudian edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, Osasuneko sailburuak ebazpen bat emango du, zeinaz deklaratuko baita ordaintzeko dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdu duela onuradunak, eta, hala badagokio, jasotako dirulaguntza –osorik edo zati bat– eta aplika daitezkeen legezko berandutze-interesak –dirulaguntza ordaindu zenez geroztikoak– Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dizkiola, hargatik eragotzi gabe bidezkoak izan litezkeen gainerako ekintzak.

Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta erantzukizun-araubidea Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da.

15. artikulua.– Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio-klausula.

Jakinarazten da datu pertsonalak «Irakaskuntza eta Garapen Profesionala» deritzon tratamendurako erabiliko direla, xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra); Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta datuen babesaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak. Ezaugarri hauek ditu tratamendu horrek:

Arduraduna: Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Helburua: eskaeren kudeaketa eta irakaskuntzarako eta garapen profesionalerako Osasun Sailak deitutako laguntzen jarraipena.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren mesedetan edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizuna betetzeko (Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

Hartzaileak: gaiaren gaineko eskumena duten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: interesdunek eskubidea dute datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: webgune honetan eskura daiteke datuen babesari buruzko informazio gehiago: https://www.euskadi.eus/rgpd/0086107

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen bidez iragarritako deialdiari eta berau garatzeko jarduketei bi xedapen hauetan ezarritakoa aplikatuko zaie oinarrizko araudi gisa: azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak ezarritakoa aplikatuko zaie. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuko da prozedura.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 6a.

Osasuneko sailburua,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**OSASUN SAILA**
*Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SALUD**
*Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitarias*

# I. ERANSKINA
# PRESTAKUNTZA PLANAREN DATUETARAKO INPRIMAKIA

Izartxoa (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

## JARDUERAREN DATUAK

**Jardueraren izena: *** ______________________

**Zentroa: *** ______________ **Saila: *** ______________

**Helbidea: *** ______________ **Zk:** ____ **Pisua:** ____ **Letra:** ____

**Herria: *** ______________ **Herrialdea: *** ______________ **PK: *** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**Telefonoa: *** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐ **Faxa: *** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**E-mail: *** ______________________

**Hasiera-data: *** ______________ **Amaiera-data: *** ______________

**Ordu teorikoen kopurua: *** ________ **Ordu praktikoen kopurua: *** ________

**Tutorea (halakorik badago): *** ______________________

**Tutorearen kargua: *** ______________________

## BEKADUNAREN EGOITZA JARDUERAK DIRAUEN BITARTEAN

**Helbidea: *** ______________ **Zk:** ____ **Pisua:** ____ **Letra:** ____

**Herria: *** ______________ **Herrialdea: *** ______________ **PK: *** ☐☐☐☐☐

## JARDUERAREN AURREKONTUA

| Kontzeptua | | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| Matrikula | | |
| Lekualdatzeak | | |
| Ostatua | | |
| Mantenua | | |
| Familia-gastuak | | |
| Bestelako gastuak (zehaztu) | | |
| | **Eskatutako zenbatekoa** | |

*Honako dokumentazio hau gehitu beharko zaio eranskin honi: 1.- Prestakuntza-plana*
*Diru-laguntzaren eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen duela organo emaileak zuzenean lor dezan Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorraren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusten diren inguruabarren egiaztapena. Eskatzaileak baimena ukatu ahal izango du berariaz; horrela egiten badu, ziurtagiria aurkeztu beharko du, Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorraren 22. artikuluan aurreikusten den moduan*

Inprimatu

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SALUD

*Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza*

*Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria*

# II. ERANSKINA
# EUROPAR CURRICULUMAREN EREDUA

## INFORMAZIO PERTSONALA

1

**Lehen abizena:** ______ **Bigarren abizena:** ______

**Izena:** ______

**Helbidea (Kalea/Plaza):** ______ **Zk:** **Pisua:** ______

**Herria:** ______ **PK:** ☐☐☐☐☐

**Telefonoa:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ **Mugikorra:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ **Faxa:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**E-maila:** ______

**Nazionalitatea:** ______ **Jaiotza-data:** ______

**Sexua:** ○ Gizona ○ Emakumea

## LAN-ESPERIENTZIA

Berrienetik hasita, deskribatu izan duzun lanpostu garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

**Hasiera-data:** ____________ **Amaiera-data:** ____________

**Lanbidea edo betetako kargua:** ____________

**Eginkizun eta ardura nagusiak:**

**Enpresa edo enplegu-emailearen izena:** ____________

**Enpresa edo enplegu-emailearen helbidea:** ____________

**Enpresa- edo sektore-mota:** ____________

\+ Lanbidea Gehitu

## HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Berrienetik hasita, deskribatu titulu/ikastaro bakoitza, banan-banan.

**Hasiera-data:** ____________ **Amaiera-data:** ____________

**Lortutako titulua:** ____________

**Ikasgai nagusienak edo ikasitako gaitasun profesionalak:** ____________

**Ikastetxearen izena eta mota:** ____________

**Nazioarteko sailkapenarekin edo sailkapen nazionalarekin bat egiten duen** ____________

\+ Hezkuntza Gehitu

## GAITASUN ETA KONPETENTZIA PERTSONALAK 2

**Hizkuntzak**

Adierazi zein den zure ama-hizkuntza (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, adierazi denak):

**Ama-hizkuntza:** ____________

\+ Hizkuntza Gehitu

Beste hizkuntza batzuk - Autoebaluazioa:

| Hizkuntza | Ulermena | | Mintzamena | | Idazmena |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ahozko ulermena | Idatzizko ulermena | Ahozko elkarreragina | Ahozko adierazpena | |
| | | | | | |

+ Lerro Berria Gehitu

**Gaitasun eta konpetentzia sozialak**

Azaldu konpetentzia horiek, eta adierazi zein testuingurutan garatu dituzun.

+ Gaitasuna Gehitu

**Antolatzeko gaitasunak eta konpetentziak**

Azaldu konpetentzia horiek, eta adierazi zein testuingurutan garatu dituzun.

+ Gaitasuna Gehitu

**Gaitasun eta konpetentzia teknikoak**

Azaldu konpetentzia horiek, eta adierazi zein testuingurutan garatu dituzun.

+ Gaitasuna Gehitu

**Gaitasun eta konpetentzia informatikoak**

Azaldu konpetentzia horiek, eta adierazi zein testuingurutan garatu dituzun.

+ Gaitasuna Gehitu

**Gaitasun eta konpetentzia artistikoak**

Azaldu konpetentzia horiek, eta adierazi zein testuingurutan garatu dituzun.

+ Gaitasuna Gehitu

**Beste gaitasun eta konpetentzia batzuk**

Azaldu konpetentzia horiek, eta adierazi zein testuingurutan garatu dituzun.

+ Gaitasuna Gehitu

**Gidabaimena:**

- ☐ AM
- ☐ A1
- ☐ A2
- ☐ A
- ☐ B
- ☐ B + E
- ☐ C1
- ☐ C1 + E
- ☐ C
- ☐ C + E
- ☐ D1
- ☐ D1 + E
- ☐ D
- ☐ D + E
- ☐ E
- ☐ BTP

## BESTELAKO INFORMAZIOA

Atal honetan, beste edozein informazio garrantzitsu adierazi behar duzu; adibidez, harremanetarako pertsonen izenak, erreferentziak, argiltapenak, etab.

# DOKUMENTUARI BURUZKO AZALPENAK

## 1 INFORMAZIO PERTSONALA

Curriculuma nola bete jakiteko, jo ezazu helbide honetara:
http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp;

## 2 GAITASUN ETA KONPETENTZIA PERTSONALAK

Autoebaluazio-taularen oinarria Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren sei mailako eskala da, Europako Kontseiluak egina.
Taulak 3 maila hauek ditu:
- oinarrizko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- erabiltzaile independentea (B1 eta B2 mailak);
- erabiltzaile gaitua (C1 eta C2 mailak).

Atzerriko hizkuntzan zer maila duzun autoebaluatzeko, irakurri beheko deskribapenak, eta adierazi zer maila dagokizun (adibidez, Bikain - C2), zure curriculumeko laukitxoetan (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko elkarreragina, ahozko adierazpena, idazmena).

| | | |
|---|---|---|
| **Ahozko ulermena** | **A1** | Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean. |
| | **A2** | Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko, zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz). |
| | **B1** | Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia, etab. Ulertzen ditut gaur egungo gaiez edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiez diharduten telebista- edo irrati-saioetako ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute. |
| | **B2** | Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak. |
| | **C1** | Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista-programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut. |
| | **C2** | Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzenekoa, ezta komunikabideetakoa ere, baita jatorrizko hiztunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut. |
| **Idatzizko ulermena** | **A1** | Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan. |
| | **A2** | Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko. |
| | **B1** | Gai naiz hizkera arruntean idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan. |
| | **B2** | Gai naiz gaur egungo gaiei buruzko artikuluak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur egungo hitz lauzko literatura-testuak irakurtzeko. |
| | **C1** | Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko. |
| | **C2** | Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulu espezializatuak edo literatura-lanak. |

| | | |
|---|---|---|
| **Ahozko elkarreragina** | **A1** | Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeko, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko. |
| | **A2** | Gai naiz komunikatzeko, jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labur-laburrak egiteko. |
| | **B1** | Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaia batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere, elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak...). |
| | **B2** | Gai naiz hiztun natibo batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan. |
| | **C1** | Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte- edo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen. |
| | **C2** | Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut, gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziaz konpontzeko, solaskidea ia konturatu gabe. |
| **Ahozko adierazpena** | **A1** | Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko. |
| | **A2** | Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko, honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana. |
| | **B1** | Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearren: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak. |
| | **B2** | Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz. |
| | **C1** | Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz. |
| | **C2** | Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko. |
| **Idatzizko adierazpena** | **A1** | Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako zoriontzekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian. |
| | **A2** | Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak. |
| | **B1** | Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz. |
| | **B2** | Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko, informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen diedan garrantzia nabarmenduz. |
| | **C1** | Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko. |
| | **C2** | Gai naiz testu argiak jariotasunez idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikulu konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorraren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-lanak laburtzeko eta kritikatzeko. |

Imprimir

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
*Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SALUD
*Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria*

# III. ERANSKINA
# ASEBETETZE-MAILAREN GAINEKO GALDEKETA

**Izen-abizenak:** ______________________ **NAN:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐

**Sexua:** ◯ Emakumea ◯ Gizona

**Prestakuntza-jardueraren izena:** ______________________

**Prestakuntza-jarduera ematen duen zentroaren izena:** ______________________

**Hasiera-data:** __________ **Amaiera-data:** __________

**Modalitatea:** ☐

**1.- Zerrenda honi begira, esan ezazu zein izan den jarduera honetan izena emateko arrazoi nagusia:**

◯ Nire lanpostua hobeto egiteko.

◯ Nire lan-baldintzak hobetzeko.

◯ Ondo etorriko zaidalako etorkizunean.

◯ Nire zerbitzuaren beharrengatik.

◯ Beste arrazoi batzuengatik. Zein?

☐

**2.- Zure iritziz, jardueraren iraupena da:**

◯ Laburra ◯ Egokia ◯ Luzea

**3.- Jardueraren baldintzei eta edukiei dagokienez, balioets itzazu alderdi hauek (1-5):**

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| Instalazioak (ikasgela, altzariak, ingurune-baldintzak) | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Emandako dokumentazioa | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Irakasleen prestakuntza | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

1- BATERE EZ / TXARRA 2- GUTXIEGI / URRIA 3-NAHIKOA / NORMALA 4- ONDO / HANDI XAMARRA 5- BIKAINA

## 4.- Prestakuntza-zentroari dagokionez, balioets itzazu alderdi hauek (1-5):

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| Bekari/Laguntzari esker ikasketak egin dituzun Erakundea bat aldator zuk eskatutako espezializazioarekin? | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

1- BATERE EZ / TXARRA 2- GUTXIEGI / URRIA 3-NAHIKOA / NORMALA 4- ONDO / HANDI SAMARRA 5- BIKAINA

Azaldu zergatia:

Norbaitek espezializazio horretan bere ezaguerak handitu nahi izango balitu, zentro hori gomendatuko al zenioke?

◯ Bai ◯ Ez

Azaldu zergatia:

## 5.- Prestakuntza-jardueran izan dituzun emaitzei dagokienez, balioets itzazu alderdi hauek (1-5):

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ikasitako ezaguerak | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Zure lana hobeto egiteko erabilgarritasuna | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Horiek gauzatzeko aukera | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

1- BATERE EZ / TXARRA 2- GUTXIEGI / URRIA 3-NAHIKOA / NORMALA 4- ONDO / HANDI XAMARRA 5- BIKAINA

## 6.- Balioespen orokorrari dagokionez, balioets itzazu alderdi hauek (1-5):

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| Orain arte eman dituzun erantzunak osatzeko, adieraz ezazu zenbateraino bete zaituen prestakuntza-jarduera honek | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

1- BATERE EZ / TXARRA 2- GUTXIEGI / URRIA 3-NAHIKOA / NORMALA 4- ONDO / HANDI SAMARRA 5- BIKAINA

Esaguzu, amaitu berri den ikastaro honi dagokionez, azpimarratuko zenukeen alderik onena:

Saia zaitez hobetu beharrekoa edota horren ona ez den aldea adierazten:

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| Neure burua aberastu dut | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Jasotako prestakuntzaren erabilera maila da | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Uste duzu egindako jarduera eraginkorra izan dela? | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

1- BATERE EZ / TXARRA 2- GUTXIEGI / URRIA 3-NAHIKOA / NORMALA 4- ONDO / HANDI SAMARRA 5- BIKAINA

Aurkitu al dituzu oztopoak kanpoko egonaldian zure ikasketak modu egokian garatzeko?

◯ Bai ◯ Ez

Zeintzuk?

Jasotako prestakuntzak zer ekarri dizu maila profesionalean?

______________ (e)n ______________ (e)(a)n.

Sinadura

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
*Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SALUD
*Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitarias*

# ARLO SANITARIOKO PROFESIONALAK PRESTATZEKO LAGUNTZA-ESKAERA

Izartxoa (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

## ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA *

◯ Titularra ◯ Ordezkaria

## DATU PERTSONALAK

*

### TITULARRA

**Izena *** ________ **Identifikazio-agiria *** ________ **Zenbakia *** ________ - __ LETRA

**Lehen Abizena *** ________ **Bigarren Abizena *** ________ **Sexua *** ◯ Gizona ◯ Emakumea

**Udalerria *** ________ **Lurraldea *** ________ **Tel. finkoa** ________ **Tel. mugikorra** ________

### ORDEZKARIA

**Izena** ________ **Dokumentu-mota** ________ **Zenbakia*** ________ - __ LETRA

**Lehen Abizena** ________ **Bigarren Abizena** ________ **Sexua*** ◯ Gizona ◯ Emakumea

**Udalerria *** ________ **Lurraldea *** ________ **Tel. finkoa** ________ **Tel. mugikorra** ________

**Eskatzaileak Euskadiko sistema sanitarioarekin duen lan-harremana, eskabidea aurkeztu eta laguntzak ematen diren arteko datetan:**

◯ Langile finkoa da, edo espezialitatea – egoiliar gisa– agindu hau argitaratu aurreko bi urteetan amaitu du.

◯ Bitartekoa

◯ Behin-behinekoa edo ordezkoa

◯ Langabezian

## JAKINARAZPENA *

◯ Elektronikoa

## JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOETARAKO ABISUA *

**Helbide elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereiziak) ***

______________________________

**Telefono mugikorraren zenbakia (SMS) (puntu eta koma (;) bitartez bereiziak) ***

______________________________

## JAKINARAZPENAK ETA ABISUAK ZEIN HIZKUNTZATAN JASO NAHI DIREN *

○ Euskara ○ Gaztelania

## BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK

**Titularraren betebehar fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren lurraldea/probintzia ***

______________________________

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- ☐ Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- ☐ Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu eta eman didatela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)
- ☐ Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu diodala eta oraindik erantzunaren zain nagoela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)
- ☒ Ez daukat dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea berekin dakarren zigor penal edo administratiborik.
- ☒ Ez nago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko desgaikuntza berekin dakarren lege-debeku baten eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debeku baten eraginpean.
- ☒ Ez daukat diruz lagundutako prestakuntza-jardueretan modu egokian aritzeko ezintasunik, lan ordaindua edo beste edozein okupazio dudalako.
- ☒ Aipatutako betebeharrak betetzen jarraituko dut aitorpen edo ekitaldi honi dagokion denboran, eta baldintzaren bat aldatzen bada, administrazioa jakinaren gainean jarriko dut, ezarritakoa guztiz urratu ez dadin eta hirugarrenen eskubideak kaltetu ez daitezen.
- ☒ Betetzen ditut indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak.
- ☒ Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

## ADOSTASUNAK

Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen organoari, bide telematikoen bitartez edo eskuragarri dauden bideen bitartez, administrazio eskudunean honako hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko:

| | | |
|---|---|---|
| Zerga-betebeharrak egunean edukitzea: | ☐ Bai | ☐ Ez |
| Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea: | ☐ Bai | ☐ Ez |
| Eskaera egiten duen pertsona fisikoaren identitate-datuak: | ☐ Bai | ☐ Ez |
| Eskatzailearen legezko ordezkariaren identitate-datuak: | ☐ Bai | ☐ Ez |
| Errolda-agiria: | ☐ Bai | ☐ Ez |

**Oharra**: kontrakotasuna adieraziz gero, prozeduran eskatutako agiriak ekarri behar dituzu.

## DATU PERTSONALEN BABESA

**Datu pertsonalen babesaren arloko informazio-klausula.**

**Arduraduna:** Osasun Saila; Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

**Helburua:** eskaeren kudeaketa eta irakaskuntzarako eta garapen profesionalerako Osasun Sailak deitutako laguntzen jarraipena.

**Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren mesedetan edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizuna betetzeko (Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

**Hartzaileak:** gaiaren gaineko eskumena duten administrazio publikoei eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

**Eskubideak:** eskubidea duzu datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta zure datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko ere, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

**Informazio gehigarria:** webgune honetan aurkitu ahal izango duzu datuen babesari buruzko informazio gehiago: https://www.euskadi.eus/rgpd/0086107.

______________________ (e)n ______________________ (e)an

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

# ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

**Eskatzaileak bere izenean jokatzen badu**, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du, eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularrari dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatzen du.

**Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzen badu**, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du. "DATU PERTSONALAK" atalean, Titularrari dagozkion datuetan, berak ordezkatzen duen pertsonaren datuak adierazi behar ditu, eta bere datuak, berriz, Ordezkariari dagozkion datuetan. Eskabidea ordezkariak sinatzen du. Ordezkarien erregistroan izena emanda egon behar da.

# JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO KANALA

**Elektronikoa**: Nire kudeaketak guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

Oharra: 10 egun igaro eta jakinarazpen elektronikora sartu ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du.

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA — DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMIA

# HIRUGARRENAREN ALTA
# *ALTA DE TERCERO*

**A** — **HIRUGARRENAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK** / *DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO*

(1) **NAN / AIZ / IFZ** / *DNI / NIE / NIF* ____________________

(2) **Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena** / *Nombre y dos apellidos / Razón social* ____________________

**Helbidea** / *Domicilio* ____________________

**Posta Kodea** / *Código Postal* ____________ **Herria** / *Población* ____________

**Probintzia** / *Provincia* ____________ **Herrialdea** / *País* ____________

**Helbide elektronikoa** / *Correo electrónico* ____________ **Telefonoa** / *Teléfono* ____________

**B** — **BANKUAREN DATUAK** / *DATOS BANCARIOS*

**IBAN** | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

**Titularra** / *Titular* ____________________

**OHARRA: Banku-kontuaren titularrak eta hirugarren interesdunak pertsona bera izan behar dute.**
*NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.*

**C** — **BAIMENA** / **CONSENTIMIENTO**

**Bulegoari baimena ematen diot goian adierazitako datuak egiaztatzeko.**
*Autorizo a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economia a verificar los datos arriba indicados.*

**Sinadura eta zigilua**
*Sello y Firma*

**D** — **BANKUAREN ADOSTASUNA** / *CONFORME BANCO*

**Finantza-erakunde hauetan, ez da bete behar:**
*No cumplimentar con las siguientes entidades*
***Kutxabank-Bankoa-Banco Santander-Laboral Kutxa-CaixaBank-BBVA-Sabadell-Banco Popular-Caja Rural de Navarra***

**Sinadura eta zigilua**
*Sello y Firma*

**E** — **SAIL EDO ERAKUNDEAREN ONESPENA** / *VºBº DPTO. U ORGANISMO*

**Baimendutako sinadura eta zigilua**
*Sello y firma autorizada*

**Data** / Fecha ____________

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
teléfono. 945 01 89 95 – e-mail registroterceros@euskadi.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK**

**A:** Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1. Pertsona fisikoa: NAN, AIZ edo pasaportea.
   Pertsona juridikoa: identifikazio fiskaleko zenbakia.

2. Pertsona fisikoa: izena eta bi abizenak.
   Pertsona juridikoa: sozietatearen izena.

**B:** Bankuaren datuak.

IBANa karaktere alfanumerikoen segida bat da, banku-kontu bat nazioarte-mailan identifikatzeko balio duena.
24 karakterez osatuta dago:
- Lehenengo 2 karaktere alfabetikoek herrialdea adierazten dute.
- Hurrengo 2 karaktereak IBANaren kontrol-digituak dira.
- Hurrengo 20 karaktereek bezero-kontuaren kodea (BKK) adierazten dute:
  - 4 karaktere: banku-kodea
  - 4 karaktere: agentzia-kodea
  - 2 karaktere: kontuaren kontrol-digitua
  - 10 karaktere: kontu-zenbakia

Banku-kontuaren titularrak eta hirugarren interesdunak pertsona bera izan behar dute.

**C:** Hirugarrenaren sinadura eta zigilua, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari baimena emateko identifikazio-datuak eta banku-datuak egiaztatzeko.

**D:** Bankuaren sinadura eta zigilua, banku-datuak egiaztatzeko.
Banku-erakundearen sinadura eta zigiluaren ordez, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularra dela dioen banku-agiria erabil daiteke.

* Finantza-erakunde hauetan, ez da bete behar: Kutxabank, Bankoa, Banco Santander, Laboral Kutxa, CaixaBank, BBVA, Sabadell, Banco Popular eta Caja Rural de Navarra.

**E:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

**DOKUMENTAZIO EUSKARRIA**

Kasu bakoitzaren arabera, honako hauen fotokopia aurkeztu behar da:
- Nortasun-agiri nazionala (NAN).
- Atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ), atzerritar egoiliarra izanez gero.
- Pasaportea, ez-egoiliarra izanez gero.
- Identifikazio fiskaleko txartela, pertsona juridikoa izanez gero.

***INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACION***

***A:*** *Datos identificativos de la persona física o jurídica según se indica a continuación.*

1. *Persona física: número del DNI, NIE o pasaporte.*
   *Persona jurídica: número de identificación fiscal.*

2. *Persona física: nombre y dos apellidos.*
   *Persona jurídica: razón social.*

***B:*** *Datos bancarios.*

*El IBAN es una serie de caracteres alfanuméricos que identifican una cuenta bancaria a nivel internacional.*
*Está compuesto de 24 caracteres:*
- *Los 2 primeros caracteres alfabéticos, identifican el país.*
- *Los 2 caracteres siguientes, corresponden a los dígitos de control del IBAN.*
- *Los 20 siguientes caracteres, corresponden al código cuenta cliente (CCC), que está compuesto de:*
  - *4 caracteres: código del banco.*
  - *4 caracteres: código de la agencia.*
  - *2 caracteres: dígito control de la cuenta.*
  - *10 caracteres: número de cuenta.*

*El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.*

***C:*** *Firma y sello del tercero autorizando a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economia a la verificación de los datos identificativos y bancarios.*

***D:*** *Firma y sello de la entidad bancaria certificando los datos bancarios.*
*La firma y sello de la entidad bancaria podrán ser sustituidos por documento del banco que acredite que el tercero interesado es el titular de la cuenta bancaria.*
** No será necesario su cumplimentación en las siguientes entidades finacieras: Kutxabank, Bankoa, Banco Santander, Laboral Kutxa, CaixaBank, BBVA, Sabadell, Banco Popular y Caja Rural de Navarra.*

***E:*** *A rellenar por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

***DOCUMENTACIÓN SOPORTE***

*Según el caso se adjuntará fotocopia de:*

- *Documento nacional de identidad (DNI).*
- *Número de identificación del extranjero (NIE), en el caso de extranjeros residentes.*
- *Pasaporte, en el caso de extranjeros no residentes.*
- *Tarjeta de identificación fiscal, en el caso de personas jurídicas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO**

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datu-babesaren alorrean indarrean dagoen gainerako araudia, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «**Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubide eta betebehar ekonomikoak**»:

1. **Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak:** Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Ogasuna eta Ekonomia Saila (posta-helbidea: Donostia kalea 1, Gasteiz); (telefono-zk.: 945018995) eta posta elektronikoko helbidean registroterceros@euskadi.eus

2. **Datuak babesteko ordezkaria eta harremanetarako datuak**: Eusko Jaurlaritzako datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, erabili posta-helbidea (Donostia kalea 1, Gasteiz), posta elektronikoko helbidea (DPD-DBO@euskadi.eus) edo telefonoa (945018511).

3.- **Tratamenduaren helburua**: Euskal Autonomia Erkidegoko ogasun nagusiaren eskubide eta betebehar ekonomikoen kontabilitateko kudeaketa eta erregistroa. Horrez gain, ordainketak eta kobrantzak egitea, zerga-betebeharrak betetzea.

4.- **Kontserbazio-epea:** jaso zireneko helburua betetzeko eta egon daitezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denbora. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

5.- **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko:
   a) 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
   b) 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
   c) 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu- araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta euskal autonomia erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.

6. **Hartzaileak:** Datu pertsonalak honako hauei jakinarazi ahal izango zaizkie
   a) Foru Aldundiak
   b) Ogasun publikoa eta zerga administrazioa
   c) Europako Batasuneko organoak
   d) Kontuen epaitegia edo erkidegoetako baliokidea
   e) Epaitegiak eta justizia-auzitegiak, aldez aurretik errekerimendua eginda

7. **Eskubideak erabiltzea:** Jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek eskubide hauek egikari ditzake:
   a) **Irispidea izatea:** eskubidea izango du tratamenduaren organo arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez, eta, hala bada, datu pertsonaletara irispidea izateko eskubidea izango du.
   b) **Zuzentzea**: berari buruzko datu pertsonal ez-zehatzak zuzentzeko eta datu pertsonal osatugabeak osatzeko eskubidea, baita adierazpen gehigarri baten bidez ere.
   c) **Ezabatzea (ahaztua izateko eskubidea)**: berari buruzko datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea, honako egoeraren bat tartean denean:
      1) datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan;
      2) interesdunak tratamenduaren oinarri den baimena erretiratu badu, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik;
      3) interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, eta tratamendurako beste arrazoi legitimorik gailentzen ez bada;
      4) datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada;
      5) datu pertsonalak lege-betebehar bat betetzeko ezabatu behar badira;
      6) datu pertsonalak jaso badira (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 8.1 artikuluan aipaturiko informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian.
      7) Berari buruzko datu pertsonaletarako edozein lotura ezabatzeko eskubidea, datu horiek ezabatzeko betebeharra badago.

***INFORMACION SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS***

*En cumplimiento del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos) y demás normativa vigente en materia de protección de datos se informa que los datos de carácter personal serán incorporados a la actividad de tratamiento denominada «**Derechos y obligaciones de naturaleza económica de la Hacienda General del País Vasco**»:*

1. ***Responsable del tratamiento y datos de contacto:** la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, que se puede contactar en la dirección postal calle San Sebastián 1, Gasteiz, en el teléfono 945018995 y en el correo eletróncio registroterceros@euskadi.eus*

2. ***Delegada de Protección de Datos y datos de contacto**: la Delegada de Protección de Datos del Gobierno Vasco se puede contactar en la dirección postal C/Donostia-San Sebastián, 1, Vitoria-Gasteiz, en la dirección de correo electrónico DPD–DBO@euskadi.eus y en el teléfono 945018511.*

3. ***Fines del tratamiento:** la gestión y el registro contable de los derechos y obligaciones de naturaleza económica de la Hacienda General del País Vasco, así como la realización de pagos y cobros, cumplimiento de las obligaciones tributarias.*

4. ***Plazo de conservación:** el tiempo que es necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y para determinar las posibles responsabilidades. Será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.*

5. ***Legitimación:** el tratamiento es necesario para el cumplimiento de obligaciones legales aplicables:*
   a) *Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de principios ordenadores de la Hacienda General del País Vasco*
   b) *Decreto legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi*
   c) *Decreto legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las fundaciones y consorcios del sector público de la comunidad autónoma de Euskadi*

6. ***Destinatarias:** los datos personales podrán ser comunicados a:*
   a) *Las Diputaciones Forales*
   b) *La Hacienda Pública y administración tributaria*
   c) *Los órganos de la Unión Europea*
   d) *El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas*
   e) *Los juzgados y tribunales de justicia, previo requerimiento*

7. ***Ejercicio de derechos:** las personas cuyos datos personales se recaban pueden ejercitar los siguientes derechos:*
   a) ***Acceso:** derecho a obtener, del órgano Responsable del tratamiento, confirmación de si se están tratando o no datos personales que le conciernan y, en tal caso, derecho de acceso a los mismos.*
   b) **Rectificación:** derecho a obtener la rectificación de los datos personales inexactos que le conciernan y a que se completen aquellos datos personales que sean incompletos, inclusive mediante una declaración adicional.
   c) ***Supresión (derecho al olvido):** derecho a obtener la supresión de los datos personales que le conciernan, cuando concurra alguna de las circunstancias siguientes:*
      1) *Los datos personales ya no sean necesarios en relación con los fines para los que fueron recogidos o tratados de otro modo;*
      2) *La persona interesada retire el consentimiento en que se basa el tratamiento y este no se base en otro fundamento jurídico;*
      3) *La persona interesada se oponga al tratamiento y no prevalezcan otros motivos legítimos para el tratamiento;*
      4) *Los datos personales hayan sido tratados ilícitamente;*
      5) *Los datos personales deban suprimirse para el cumplimiento de una obligación legal;*
      6) *Los datos personales se hayan obtenido en relación con la oferta de servicios de la sociedad de la información mencionados en el artículo 8, apartado 1 del Reglamento (UE) 2016/679.*
      7) *Derecho a que se elimine cualquier enlace a sus datos personales cuando haya obligación de suprimirlos.*

d) **Mugatzea**: berari buruzko datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea, honako kasu hauetan:
   1) datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egin bada, tratamenduaren organo arduradunak datuon zehaztasuna egiaztatzeko adinako epe batez;
   2) tratamendua legez kontrakoa bada eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egin badu eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatu;
   3) organo arduradunak jadanik behar ez baditu datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko;
   4) interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, organo arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunarenen gainetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

e) **Tratamenduaren aurka egitea:** interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, tratamenduaren arduradunari galarazteko berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egitea, tratamendua beharrezkoa bada ere interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko edo ahal publikoak erabiltze edo hirugarrenen interes legitimoa babesteko, baita profilak egiteko:
   1) tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi larriak daudela edo datuok beharrezkoak direla erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
   2) datuen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

f) **Tratamendu automatizatua:** gainera, eskubidea izango duzu tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta zugan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea.

**8. Datu pertsonalen babesari buruzko informazio xehea,** hemen:

a) Gure web orria (www.euskadi.eus/datu-babesa)

b) Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB) 2016/679 (http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

c) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-16673)

Jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek aipatu diren eskubideak egikaritu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunaren aurrean.
Bestalde, jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek datuak babesteko ordezkariarengana jo dezake, tratamenduaren organo arduradunaren aurka edo tratamendu-eragilearen aurka Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri aurretik, hala xedatuta baitago Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 37.1 artikuluan.

d) **Limitación:** derecho a que se limite el tratamiento de sus datos personales en los siguientes supuestos:
   1) Cuando se impugne la exactitud de los datos personales, durante un plazo que permita al órgano Responsable verificar la exactitud de los mismos;
   2) El tratamiento sea ilícito y la persona interesada se oponga a la supresión de los datos personales y solicite en su lugar la limitación de su uso;
   3) El órgano Responsable ya no necesite los datos personales para los fines del tratamiento, pero la persona interesada los necesite para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones;
   4) La persona interesada se haya opuesto al tratamiento, mientras se verifica si los motivos legítimos del órgano Responsable prevalecen sobre los de la persona interesada.

e) **Oposición:** derecho a oponerse en cualquier momento y por motivos relacionados con su situación particular, a que el responsable del tratamiento realice un tratamiento de los datos personales que le conciernen basado en el ejercicio de una misión de interés público o en el ejercicio de potestades públicas o en el interés legítimo de terceros, incluida la elaboración de perfiles:
   1) El responsable del tratamiento dejará de tratar los datos salvo que acredite motivos imperiosos que prevalezcan sobre los intereses, derechos y libertades de la persona interesada, o resulten necesarios para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones.
   2) Si se tratan datos con fines de investigación científica o histórica o fines estadísticos de la persona interesada tendrá derecho, por motivos relacionados con su situación particular, a oponerse al tratamiento de datos personales que le conciernan, salvo que sea necesario para el cumplimiento de una misión realizada por razones de interés público.

f) **Tratamiento automatizado:** Ud. tiene derecho, además, a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en Ud. o le afecte significativamente de modo similar.

**8. Información detallada sobre protección de datos personales en los** siguientes lugares:

a) Nuestra página web (www.euskadi.eus/proteccion-datos)

b) Reglamento General de Protección de Datos (UE) 2016/679 (http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

c) Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3/con

La persona o personas cuyos datos personales se recaban tiene la posibilidad de ejercitar estos derechos ante el órgano Responsable del tratamiento.
Por otro lado, la persona o personas cuyos datos personales se recaban pueden dirigirse a la Delegada de Protección de Datos, con carácter previo a la presentación de una reclamación, contra el órgano Responsable o la persona Encargada del tratamiento, ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, según lo dispuesto en el artículo 37.1 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.